

Laxe vs. Vallin



ARITZ GALARRAGA

Pozik nentorren zinematik, zeina ez den sarri gertatzen –hasteko, zinemara sarri joan ezin naizelako; baina batez ere zinemara joan ahal naizetan, sarri, poza baino beste sentimenduren batekin itzultzen naizelako–. Sua piztu zuen pindarra izan zen *O que arde*, Oliver Laxe galiziar zuzendariaren azken filma. Nik baino hobeto esango dizue Har-kaitz Canok: “Filma baino areago, pendulu hipnotikoa baita Oliver Laxerena, lehen segundotik harrapatzen eta askatzen ez gaituena” –bide batez, ahal baduzue irakurri zutabe osoa; ze ondo idazten duen gaztetxo honek, etorkizun ezinhobea iragartzen diot euskal letretan–.

Baina zorionak gutxi irauten du prekarioaren etxean –eskuarki, alokairukoa, eta abusuzko prezioekin–. Beti bada eguna izorratuko dizun zerbait: kasu honetan, liburu baten argitalpena –eta ez nuen uste esaldi hori sekula idatziko nukeenik–. Sinatzailea, Pedro Vallin –*La Vanguardia* egunkarian politikaz idazten duena interesez jarraitzen dut, bestalde–. Titulua, *¡Me cago en Godard!*. Eta tesia, masa-film estatu-batuarrak ezkerzaleak direla, alegia, osagai aurrerakoi eta askatzaileak dituztela, Europako zinemaren joera burges, kontserbatzaile, beren baitara bilduaren aldean. Irakurri gabe ezin juzgurik eman, baina itxura guztia dauka urteko *gafapasta* libururik onenaren saria irabazteko.

Zer esango dizuet nik, *Star Wars* ere ikusi ez duen honek. Baina Rohmer, Pasolini, Buñuel ikusten hezi banaiz –ez intelektuakeriarik bilatu, otoi, hitz horietan; deskriptiboak dira erabat–. Laxe vs. Vallin, momentuz zalantzarik ez daukat. Baina etorkizunean, lotsa sentituko dut nire iragan filmikoaz? Arbuiatuko dut, uko egin, errudun sentituko naiz? Eta, jendeak tontotzat hartu baino lehen, bandoz aldatuko banintz? Kirioak dantzan dauzkat une honetan. Lasaitzeko, ez dakit Chopinen nokturno bat entzun, edo ikusi *Gure Kasa* Euskal Telebistan. ●



“INJUSTIZIARI JARRAIPENA EMAN DIO GORENAREN ERABAKIAK”

ALTSASUKO GURASOAK

Espainiako Auzitegi Nagusiak Altsasuko gazteei ezarritako espetxe zigorrak aztertu ditu Espainiako Auzitegi Gorenak, irailaren 18an aurkezturiko helegiteak kontuan hartuta. Epaileak uste du Altsasuko liskarrean “diskriminazioa” eta “nagusitasun abusua” larrigarriak ez direla aplikatu behar, baina zigor gogorrrak berretsi ditu. Zigor handiena, 9 urte eta 6 hilabeteko kartzelaldia Oihan Arnanzentzat (13 urtekoa zuen aurretik), eta txikiena, urte eta 6 hilabetekoa Ainara Urkijorentzat (2 urtekoa zuen). Gazteetako batzuek 1.000 egun baino gehiago daramatzate espetxean. **2019/10/09**

